

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

8. astea (2026ko otsailaren 16tik 22ra)


Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarritzko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 258,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (323,4/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasak behera egin dute aurreko astearekin alderatuta. COVID-19aren tasa baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 23 lagin jagoleen % 56,5 baieztatu da, ABS bat, 2 gripe-birus eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 11,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,5/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA-tasa oinarritzko intentsitate mailan (balio inter epidemikoa) kokatu da aste honetan, bronkiolitisaren (< 2 urte) eta larrialdietako gripe-sindromearen tasak aurretik kokatzen ziren maila berean.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 142 ABS, 37 gripe-birus eta 9 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 258,0 kasukoa izan da (323,4/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 194,5/100.000 izan da Araban, 246,3/100.000 Bizkaian eta 306,0/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2185,4 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 urtekoen eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1215,1 eta 305,8 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 103,5 kasukoa izan da (123,8/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI guztietan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 8. astea	Tasa 7. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	206,3	289,3	0,71 (0,64-0,79)
Arabar Errioxako ESI	475,5	543,4	0,88 (0,61-1,25)
Barakaldo-Sestaoko ESI	246,6	308,7	0,80 (0,69-0,93)
Barrualde-Galdakaoko ESI	265,9	320,4	0,83 (0,76-0,91)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	265,4	331,3	0,80 (0,73-0,87)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	224,1	274,9	0,82 (0,71-0,94)
Uribeko ESI	186,5	265,0	0,70 (0,62-0,80)
Bidasoako ESI	277,4	295,4	0,94 (0,78-1,13)
Debararrenako ESI	284,1	323,1	0,88 (0,73-1,06)
Debagoienako ESI	279,1	334,9	0,83 (0,68-1,02)
Donostialdeako ESI	296,5	347,7	0,85 (0,79-0,92)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	324,3	469,3	0,69 (0,60-0,80)
Tolosaldeako ESI	332,0	426,2	0,78 (0,65-0,93)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 3,3 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (4,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 100.000 biztanleko 202,1 kasukoa izan da (295,9/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arena baxu mantentzen da 100.000 biztanleko 0,3 kasutan (0,3/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 23 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 56,5 baieztatu dira. ABS bat, 2 gripe-birus (AH1 bat eta AH3 bat) eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira. 5 errinobirus, 4 metapneumobirus eta 4 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasunak behera egin eta % 8,7an kokatu da aste honetan (% 6,4 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 4,3raino jaitsi da (% 12,8 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 4,3koa izan da (% 2,1 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	8. astea		7. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	2	8,7	3	6,4	378	32,7
SARS-CoV-2	1	4,3	1	2,1	16	1,4
ABS	1	4,3	6	12,8	89	7,7
Metaneumobirus	4	17,4	5	10,6	19	1,6
Parainfluenza	0	0,0	2	4,3	32	2,8
Adenobirus	0	0,0	2	4,3	14	1,2
Errinobirus	5	21,7	7	14,9	212	18,3
Urtaroko CoV	4	17,4	7	14,9	72	6,2
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	8	0,7

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 11,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,5/100.000 aurreko astean), 12,2/100.000 gizonetan eta 10,5/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 87,1 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 34,8 eta 6,1 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,2koa izan da 100.000 biztanleko (0,7/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 1,3koa 100.000 biztanleko (1,8/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,1 kasukoa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,0koa izan da (% 0,4 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 3,7raino jaitsi da aste honetan (% 6,5 aurreko astean) eta ABSrena % 18,2an kokatu da (% 19,2 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	8. astea		7. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	192	1,0	245	0,4	6237	1,7
Influenza	218	3,7	276	6,5	6428	25,5
ABS	198	18,2	255	19,2	5824	16,9

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gairatu zen eta, aste honetan (08/2026), tasa oinarritzko aktibitate mailara bueltatu da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zen, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gainditu zen, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 142 ABS, 37 gripe-birus eta 9 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 37 gripe-birusetatik, 20 A motakoak izan dira, 3 A(H3), 12 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoak. 2025/40 astetik 8600 detekzio erregistratu dira, 8558 (% 99,5) A motakoak eta 42 (% 0,5) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4540 birusetatik, 2718 (% 59,9) A(H3) eta 1822 (% 40,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko otsailak 25

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza